

LITERATURA GREKOA

11/09/2018

Gure tradizio klasikoa ilustratuen garaian sortu zen. Baina grekoak ekialdekoak dira. Adibidez, 1821an peloponesokoak konstantinoplako otonanoen aurka matxinatu ziren. Grezia independente batzentzat konstituzio bat idatzi zuten, ilustratuak zirenak (Vianan ibilitakoak..). Baina peloponesoko jendeak ez zuen ezer ulertzen. Hor tentsio handia sortu zen, Grezia modernoan, gaur egun arte. Guk sortu dugu gure tradizioa. Mendebaldeko grekoen kultur zati bat idealizatu dute, guk hartzen dugulako bakarrik gustatzen zaiguna.

Shelley eta Byron harrituta geratu ziren Greziara heltzean, hango jendea xumea zelako, ez zuten "Aristotelesik" topatu.

Greziarrek haien buruari erromatarra esaten diote, ez heleniarra. orain dela 70 urte estatu kolpe bat egon zen Grezian, artista famatu bat, Melina Mercury, atzerrian zegoela faszistak zirela esan zuen.

18/09/2018

Gutenbergen inprentarekin iraultza egon zen, baina hasieran artisaua zen eta pixkanaka zabaldu zen. Gainera, politikoki grekoek arazoak zituzten inprenta erabiltzeko. Katoliko eta ortodoxoek arazoak izan zituzten. Turkokraizaren garaiari buruz ari gara, otomandar inperioan. Garai hartan Italian, Alemanian, Espainian, inprenta erabiltzen zen. baina otomandarrek debekatu egin zuten grekoen probintzian, alfabeto grekoa ez erabiltzeko, bakarrik latinezko testuak zabaltzeko. Azken hau jesuitek eta dominikoez erabaki zuten, haiek ortodoxoen indarra ahuldu nahi baitzuten. Orduan Venezian egiten zituzten, komunitate grekoa zegoelako.

Grezia erabat desberdina da, gure tradiziotik urrundu da historian zehar.

Homeroren testua, KA 8 edo 7 mendeetan, lehendabiziko aldiz idazten den momentua. Ez gaude ziur Homeroren izenaren atzean pertsona bat edo bat baino gehiago dauden. Hala ere, ikerketa batzuek esan digute odisea eta Iliadaren atzean idazle berdina dagoela. Lanak egiteko materiala ahozko tradiziotik atera zuen, hau da, berak ez zuen dena asmatu, baizik eta gizartean zegoen. Homeroren lanak idazteko Greziako alfabeto berria erabili zen. Atenasen poesiari buruzko lehiaketak egitea erabaki zen, ia nork errezitatzen zuen hoberen Homeroren lanak. Orduan erabaki ze Homeroren testu finkoa idaztea, berdina izateko, hau da Homeroren testuaren edizio bat egin zen baina ez dakigu nolakoa zen.

-Aedoa: poeta sortzaileak, Homero aedo izango litzateke.

-Rapsoda: aedoen lanak kantatzen dituzte.

Bizantinok egindako edizioa zabaltzen hasi zen, Alexandrian hasita. Venezian inprimitu zen XV. mendean lehendabiziko aldiz. 1800 urte igaro ziren Homero inprimatu arte, beraz, ez dakigu zehatz mehatz zenbat aldatu den testua, inprentarekin testua fijatu zen. Lehen testuak aldakorrak ziren.

Irakurtzen ez dena ez da kopiatzen eta kopiatzen ez dena papiroetan hiltzen. da.

LITERATURA GREKOA: SARRERA (amaia)

Gutenbergen inprentarekin iraultza egon zen, baina hasieran artisaua zen eta pixkanaka zabaldu zen. Gainera, politikoki grekoek arazoak zituzten inprenta erabiltzeko. Katoliko eta ortodoxoek arazoak izan zituzten. Turkokraizaren garaian buruz ari gara, otomandar inperioan. Garai hartan Italian, Alemanian, Espainian, inprenta erabiltzen zen. baina otomandarrek debekatu egin zuten grekoen probintzian, alfabeto grekoa ez erabiltzeko, bakarrik latinezko testuak zabaltzeko. Azken hau jesuitek eta dominikoez erabaki zuten, haiek ortodoxoen indarra ahuldu nahi baitzuten. Orduan Venezian egiten zituzten, komunitate grekoa zegoelako.

Homeroren testua, KA 8 edo 7 mendeetan, lehendabiziko aldiz idazten den momentua. Ez gaude ziur Homeroren izenaren atzean pertsona bat edo bat baino gehiago dauden. Hala ere, ikerketa batzuek esan digute odisea eta iliadaren atzean idazle berdina dagoela. Lanak egiteko materiala ahozko tradizioetik ateratu zuen, hau da, berak ez zuen dena asmatu, baizik eta gizartean zegoen.

Grezia erabat desberdina da, gure tradizioetik urrundu da historian zehar. Aedoak poeta sortzaileak dira ahozko tradizioan, tradizioetik hartutakoa bakoitzak bere moduan egiten zuen.

Ez dakigu zergatik, bat batean idatziz jarri zen tradizioa eta erabili zen alfabeto Berri bat Homeroren lanak idazteko lehenengo aldiz. Norbaitek Homeroren testuaren edizio bat egin zuen, ez dakigu nolakoa den ez baita ailegatu gure denborara arte. Horrela, munduan zehar bere testuak zabaltzen hasi ziren. Baina bat batean Bizanzioko Aristofanesez Alexandrian (k.a. 4 eta 3 mendeen artean), edizio bat egin zuen, testu hau errezipitatu egiten zen eta mendeetan zehar kopiatu zen, Veneziako inprentetan historiako lehenengo aldiz inprimitu arte, xv mendean. Ez dakigu zehatz mehatz zenbat aldatu den Homeroren testua orain arte, guk fijatu egin dugu testua eta garrantzitsua testua nola transmititu zen jakitea da. Inprentak testuak finkatzearen desira lortu zuen. Alejandriatik inprentaraino testuak transmititu ziren eskuz kopiatuz eta hori oso zaila da.

Erroman biblioteka handiak zeren paperezko rolloekin eta hauek desagertu egin dira. ->testu asko desagertu egiten dira, batzuk biolentzia gabe, hau da, ez dira galtzen bakarrik liburutegi bat erreta. Testuak ez kopiatzeagatik galdu daitezke adibidez...

Grekoek ere, bere historian zehar, pixkanaka pixkanaka hautatu zituzten beraien testuak, zer kopiatzen zen... haiek ere bere tradizioa sortzen ari ziren. Tradizioan hasieratik selekzio bat egin da.

Ideiarik garrantzitsuena: nola testuak inprenta ailegatu arte aldatzen ari ziren tradizioan, ez dira testu finkoak. Tradizioa sortzen ari zen gaur eta duela 2500 urte.

Gure tradizioa denboran zehar konpondu egin da. Kristauak grekoak ziren. ...

HOMERO

Odisearen itzulpena ona da Gredosena. Tragedian oso garrantzitsua da. Homero aedo bat zen, taklea andron kantatzen dituen. Ahozko tradizioaren parte dira, abeslariak dira, izan ere analfabetoak ziren. Ez dakigu Homero existitu zen edo ez, horrela deitzen zaio Iliada eta odisea idatzi zuenari. Grekoen artean bereizten zen aedo eta rapsodaren artean.

Aedoari deitzen zaio ahozko tradizioaren poetari, berak nolabait "konposatu" eta abesten du bere lana. Lotzen dira motiboak, gaiak, similak.. Exnihido. Zeozer dago bere atzean, tradizio batetik ateratzen du bere lana.

Rapsoda, literalki "abestiak josten dituen", haiek ez dute asmatzen, baizik eta tradizioak emandakoa abesten.

Atenasko jaietan (ya hablo de esyo).bateratu egin zen ahozko tradizioan aldaeretan bizi zena. Baina ahozko tradizioan testuak ez dira testuak, ahotsa da, soinuak dira

Homeroren testuak sortzeko oso hizkuntza berezia erabiltzen zen, lerroen neurria ere oro berezia zen, hexametro daktilikoa.

Grekoen artean familia eta bizitza soziala gizarteko oinarri handiena dira.

Formulen modua, erabilera, ze inportantzia duten... garrantzitsua da.

Azterketan eszena tipiko bat jar dezake, Homeroren 10 lerro

208/11/20

Tragedia nola sortzen zen? Egun batean antzezten zen egun osoan eta gero drama bat egiten zen. Hiru tragedia ikusita arima goibeltzen denez, arintzeko, drama satiriko bat jartzen zen etxera alaiago joateko. Dirudienez, teatroa hasi zen seigarren mendean eta tradizioak

esaten du Tespisek eman zuela lehenengo pausoa guk ezagutzen dugun teatroa sortzeko. Ditidamoa: Dioniso jainkoa ohoretatzeko kanta bat, kanta hori koru batek egiten zuen, dantza ere egiten zuten jainkoaren ekintzak adierazteko. Bat-batean, esaten denez, Tespisek ditidamoak bere koru eta konpainiarekin antzezten zituen herriz herri eta esaten da Tespis bera zela koruaren gidari edo zuzendaria eta badirudi estribillo bat zegoen ditidamoetan “etor zaitez Dionisio” zioela eta esaten da Tespisek esan zuela “hemen nago”, jainkoaren pertsonalitatea hartuz eta korua eta zuzendaria bereiziz, beraien arteko elkarrizketa bat sortzeko. Elkarrizketa horretatik sortzen da teatroa, hori da Tespisek egindako sormen handiena, elkarrizketarekin batera teatroa.

Silok eszenatokira eraman zuen beste aktore bat, teatroa askoz dinamikoagoa sortzeko bigarren aktore bat ipini zuen.

Gero, Aristotelesek esaten du Sofoklesek hirugarren aktorea eraman zuela eszenatokira. Horrela, eszenatokian hiru aktore zeuden elkarrizketak egiteko, hirurak protagonistak, zeren eszenatokian jende gehiago egon daiteke, baina hitz egiten dutena, Sofoklesi esker hiru ziren.

Hizkuntza zentzu zabal batean, batez ere tresna bat bezala. Garatu egin behar da, garai hartan agertzen da eta garatzen da ikaragarri filosofia eta erretorika, liskarrak tribunaletan tratatzen dira eta abokatuak diskurtsoak behar dituzte. Orduan, gizarte demokratiko baten hizkuntza hori gero teatroan ikusten dugu, batez ere tragedian. Tribunal batean izango liratekeen tentsio eta liskarrak eszenatokira eramaten ziren, eta hizkuntza bera erabiltzen zen.

2018-12-11

Tragedian erabiltzen diren gaiak “mitologikoak” dira, hau da, beste garai batean kokatzen dira. Adibide baten bat badugu historikoa, Eskiloren persiarrak garai hartan gertatu zen zerbait kontatu zen, Persiako hiriburuan. Badugu adibide bat, Frinikoren tragedia famatuena da. Gaiak ezin dira historikoak izan. Tragediak egiten dituenak abantailak ditu zeinen guztiek dakite zertan datzan historiak, adibidez, Edipori buruz hitz egiten bada, guztiek dakite zertaz hitz egingo den.

Beste gauza bat, Eskilo, Soklofes...en lanak berehala klasiko bihurtu ziren. Errenazimentuak berriz hartu zuen teatroaren teoria eta idazleek Aristotelesen teoria eta arauak hartu zituzten beren lanak egiteko. Zer gertatu zen? Gara helenistikotik aurrera, geroz eta gutxiago antzezten ziren tragediak eta komediak, horrelako lana desagertu dira eta baita garai kristauan teatroa ia ia desagertu zen. Erromatarren garaian antzeztu ziren klasikotzat aztertzen zirenak eta baita erromatar autore batzuk. Fedrarik ez zegoen antzinako

klasikoen artean, Hipolito zegoen eta hau da Fedra obraren eredua. Baina horrelako tragediarekin Senekak Fedra bat idatzi zuen eta Racin-ek ere beste Fedra bat idatzi zuen, eta Senekaren kontuak euripidesenarekin nahasten dira eta ikusi genituen filmean ikusten da. Unamunok ere Fedra bat idatzi zuen eta moldatu egin zuen, Racinen Fedran iada kutsu kristaua ikus daiteke eta Unamunok hartu zuen eredua... Errenazimentuan tragedia klasikoa behartzen da eta oso gutxi antzezten diren arren, irakurri eta itzuli egiten dituzte, baina Fedraren kasuan bezala, nahasi egiten dira Senekaren tragedien elementuarekin. Nolabait, elementu greka agertzen da. Nahiz eta askotan tragedia grekoa ez izan, (power point bat aigea ikusten ta esaten aidana maomeno hor jartzeu: harrera teoria eta teatroa). Sofoklesen ezaugarri asko irakur daitezke Miltonen lanean, nahiz eta gaia eta kontatzen duena biblikoa. Horrela, ikus dezakegu tragedia grekoak eragin handia zuela, nahiz eta askotan ez aipatu.

XV. mendearen bukaeran berriz, baina oso gutxi, tragedia grekoak antzezten hasi ziren, itzuli ziren lehenengo aldiz XV eta XVI mendeetan, gaztelaniara, italiarrera... itzulpen asko egiten hasi ziren. Erasmok berak hainbat obra itzuli zituen eta bere eragina ikaragarria izan zen, helenista handi bat zen. Beste humanista batek, eskotiar batek ere itzulpenak egin zituen. Euripides izan da beti... Edipo erregea antzeztu zen beti 1585ean antzeztu zen Vicenzan, zergatik? Aristotelesek esaten zuelako hau zela tragediarik onena eta perfektuena, hala ere, eztabaida egion zen baina aldegin handiak egin zituzten Edipo erregea itzultzeko, itzulpen berezi bat egin zuten, musika sortu zuten... Zer gertatu zen? Bat batean, pentsa dezakegu, garai hartan inauguratzen zen ez bakarrik teatro olinpikoa baizik eta joera bat: tragedia grekoak antzezteko beste garai bat inauguratzen zela, baina ez zuen kontinuitaterik, lana han geratu zen.

Nola agertzen dira tragedia eta Homeroren aztarnak seferisengan? (galdera posiblea) egela apunteen eskema igoko du. Azterketan ez errepikatu apunteetakoak, guk ekarpen bat egin behar dugu, gure hitzekin jarri... Azterketan Seferis edo Tragedia sartuko dira, Seferis Homerorekin eta tragediarekin erlazionatu. Seferisen poemak karpitetan daude, apunteak ikusi eta gero poemak. Azterketan konparazio orokor bat (Seferisena, poema konkreturik ez). Opera ezererez. Etxean erreflexio sakon eta motz bat egin behar da'

Powerpointa segiz...

FEDRA

Apunteetan historia zertan datzan kontatzen du, nola kontatzen den eta zer aldaketa emateen diren. Adibidez, Corneillek XVII. Mendean Edipo bat idatzi zen, baina bere garaiko irizpideak erabili zituen, bera kontziente zen bere garaiko egiantza (verosimilitud) eta k.a.

V mendekoa ezberdina zen. Unamunoren Fedrarekin berdina gertatzen da. Hori da garrantzitsua, proiektzioarekin du harremana, ez dugu tragedia berari buruz hitz egiten, garaian zehar eta mendeetan zehar nola hartu zuten. Corneillek bere garaiko egiantza eta begirunea (decoro) errespetatu behar zituen, orduan, garai hartako publikoak ezin zuen onartu lizunkeria bat eszenan, eta gainera, bestalde, kontraesana izan zen nola posible den intzestua, gaizki ikusten baitzen. Nola da posible errege bat inzestuoso, hiltzailea... izatea? (Edipo) hori dekoaren aurka doa, eta beraz, garai hartan beste modu batean azaldu behar zen. Horren aurrean, egin zuena (Corneillek eta beste guztiek ere) Ediporen historiaren tentsioa txikitzeko amodioaren historia bat sartu zuten, horrela Ediporen bildea (trama) bikoiztu egiten da, horrela, nahiz ta zeharkatzen diren, alde batetik Ediporen historia eta bestetik amodioa dauzkag7u. Horrela, bukaera zoriontsua izatea lortzen du Corneillek, ia ia Hollywoodkoa, izan ere, ezkontza batekin bukatzen da. Alde batetik Ediporen historia kontatzen du baina beste bat zeharkatzen dio eta honek amaiera zoriontsua izaten du, horrela tragediaren helburua lortzen du.

Raicen en fedran argi eta garbi ikusten da hau. Pertsonaia ez du pekatua egiten, bakarrik adierazten da gauza txar bat egiteko intentzioa duela. Eztabaida oso kristau bat ematen da, kulpabilitasunaren kontua, ariman pisu handia du eta hori ez dago garai klasikoko tragedietan, zeren antzinako grekoen kultura lotsa kultura da eta ez kulpa kultura.

Bestalde, Corneillek bere edipoan botere hartzeko historia bat sartzen du, amodiozko historiarekin lotzen du, baina bitxia da hau, Sofoklesen edipoan badagoelako horrelakorik.

Hau garrantzitsua da, tragedia garaiaren arabera moldatzen da, publikoak zer onartuko duen ikusi behar da.